

...eta

# kittto!

832 zkia.  
2013-I-18

## NAPOKA IRIA

### Zuzenean hobeto

*Coliseoan, hilaren 25ean*



## EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



# ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



## ODONTOLOGIA OROKORRA

### ORTODONTZIA

Invisalign  
Erkutuko mihi-ortodontzia ikusezina  
Zeramika eta zirkonizko bracket oso estetikoa

### PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala  
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa  
Periodontitis-tratamendua kirurgiank gabe  
LASER diodoi  
Mentua hartzaitan

### AHO-KIRURGIA

Ateratze zatak eta sutra-hondarrak  
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin  
Barneko hortzak ateratzea

### INPLANTOLOGIA

Hézur eta hortzoi gabelarentzako tratamenduak  
Hézur-birsortzea biomaterial bidez  
Hortzoi-birsortzea  
Inplantologia transzigomatikoa  
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin

### PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak  
Zirkonizko koroa punak  
CAD-CAM koroak (ordenagailur egindakoak)  
Kerilik

### MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

### OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA

### ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean

### ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

### ERRADIOLOGIA DIGITALA

### SUDUR-LASAIGARRIA

### MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, IRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMA, AZKARAN, PREVISORA IBERIANA, SANTA LUCIA, AEGON/STONERIDGE, OCASO, AMANTASALDI, PADI...

## ZERBITZU BERRIAN

### ETXETARAKO ORDUTEGIA

Asteleneroetik ostiralera  
08:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

### IRAZABAL DENTAL 24 ORDUZ



### GALDETU 2. txandako fitxa

Unibertitate erantzutesuetan irakasleak gara.  
Dipea duen zentroa gara.

### ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:  
Pazientea jaso eta etxera itzuli



# IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

**%20** Deskontua hortz-inplanteetan\*

**%10** Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa  
Hortzetarako arkatz zuritzailua  
Higienaa ..... 525 €  
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

\*Sola hortz-inplanteentarako

# ASTEAN ESANAK

"Egoerak neke handia sortzen die ama etorkinei: zama handia daramate gainean. Eta batzuek umeak zaintzeari laga diote beste batzuk zaintzearren. Seme-alaben hobe beharrez eginda ere, ez direla ama onak uste dute"

(NANCY JUAPE, PSIKOTERAPEUTA)

"Loterian hiru bat urte dira jendeak gastuari eusten diola. 400 euro badituzte, 20 jokatuko dute, ez gehiago. Ez gaude krisian, baina abian jarri den sariei egin beharreko %20ko deskontuak kalte egin diezaguke"

(ANTONIO MORENO, LOTERIA SALTZAILEA)

"Euskadi sarien gain orria pasatzeko unea da, macarthysmoa desagertzen ari baita. Baina oraindik badago esaten duenik salaketa hura txarra izan zela euskal literaturarentzat. Ustelkeria hura salatu beharra zegoen"

(JON ALONSO, IDAZLEA)

"Rocka zahartu egin da; ez gaitezen engaina. Gazteek beste adierazpide batzuk dituzte: rapa edo reggaetona, esaterako. Horrek ez du zertan txarra izan. Belaunaldi bakoitzak eskubidea du beste gauza batzuk egiteko"

(ROBERTO MOSO, ABESLARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**JAIKI.-** Jasa, bizitasuna. Gaztelerazko 'garbo, salero'. "Ikusizu zelako jaikixa daroian zure alabiak".  
**EUKIAREN JAIXIA.-** Dirua izatiak ematen duen harrokeria. Juan San Martinen esanetan: eukiaren jaikia burua gora edo atzeruntz dabela ibiltzen diran aberats barriengatik esaten da. "Juan jakozen hari eukixan jaikixak; gizajuak ez eukan zer ahora eruan, ezta hilda nun jausi be".

## eskutitzak

### URTARRILAK 12, ZORIONAK DENOI!

Zorionak, bai, aurreko zapatuan Bilboko manifestazioan parte hartu zenuten guztioi, eta mila esker Euskal Preso eta Iheslari Politikoen eskubideen alde egindako aldarri erraldoiagatik. Baina, zorritarrez, ez da nahikoa izango. Eta, batzuk mugitu nahi ezik jarraitzen duten bitartean, gu ezin gara gelditu.

Bilboko kaleetako ilusioa eta olatu geldiezin ho-

ri Eibarko kaleetara ere ekarri behar dugu. Gainean dugu, berriz ere, **Azken Ostirala**, urtarrilaren 25ean; eta, hilero bezala, 19.30etan Untzagan elkartuko gara gizakatea osatzeko.

Giza eskubideak, irtenbidea eta pakea nahi duten eibartar guztiei dei egiten diegu bertan parte hartzeko. Guztion artean... lortuko dugu!

**EIBARKO HERRIRA**



**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIdea:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Igor Zalbidea

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETTA)**

**kutxa** gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria



Mikel Larreategi

## Derrigorrez birziklatu ala ez?

**Azken hillietan zihar** makiña bat bidar entzun doguz gure inguruko politikuak atez ate zakarra batzeko sistemari buruz diskutitzen. Hainbesteraño heldu da kontua atez ateko batze horren aldeko eta kontrako plataformak eta firma-batziak sortu dirala. Azken barrixa Bergaratik etorri da: sistema horren kontrakuak zakar-polsak balkoietan zintzilik ipiñi dittue eta erreferenduma eskatu dabe herrixak gai horren inguruan erabagi daixan. Siñeskaitza egin jata hasiera-hasieratik kontu honek euki daben postura ideologikua: Bilduren inguruko mundu guztia atez atekuren alde posizionau da, eta EAJ, PSE eta PPren ingurukuak, aldiz, aurka. Eta alde eta aurka zelan gafiñera! Eziñezkua da ideia politikuak zaborraren kontura hain zuzen eruatia, eziñezkua! Nere ustez kontua gaizki kudeatu dabe alde bixek. Instituziñuek egin bihar daben galderia zera da: zaborra birziklatzia derrigorrezkua izan bihar da, ala ez? Lehelengo galdera horri erantzun, eta gero hasi zaborra batzeko sistema egokixa zein dan erabagitzen. Neretako erantzuna garbixa da: bai, derrigorrezkua izan bihar litzake birziklatzia. Eta, hori zelan lortzen da? Atez ate zaborra batuz? Kontenedoriekin? Munizipalak etxera bialduta multak ipintzen? Ba, ez dakit, baiña hori erabagitzeko bozkatzen doguz lau urtero politikuak. Eta Udalera eta Diputaziñora be proposamen hori luzatuko neuke: erabagi lehelengo birziklatzia derrigorrezkua ala hautazkua izan bihar dan, eta gero erabagi sistemia.

## Eguraldixak hainbat kalte eragin dittu

**Azken egunotako eurixak eta haize boladak** hainbat kalte eragin dittue herrixan: astelehenian Urkizun putzua egin zan eta, ura dendetara sartzeko arriskua eguanez, Mankomunidadeko bihargiñek isurbidiak garbittu zittuen; Arraten tximistia jausi eta argindarraren kuadroa urtu eban, toki batzuk argi barik lagata; gaberdixan Barrenako enpresa batera ura sartu zan eta su-hiltzailiak hustubidiak garbittu zittuen; haiziak udaletxeko arkupietan ipiñitta eguazen "gerrako umien" argazkixak bota zittuan; bariantian arbola jausi zan, baiña ez zetsan trafikuari eragin; eta Brigadakuak Unbe, Txonta, San Kristobal eta Galiziako Etorbidian, Arrate Biden eta Azittaingo industrialdian luperixa txikixak egon ziran.



Mankomunidadeko bihargiñek isurbidiak garbittu zittuen.

Brigadakuak Unbe, Txonta, San Kristobal eta Matsarixako errekastuak garbitzen ibilli dira, ur asko datorrelako.

## IMESAK ixa millioi bat euro galdu dittu

**IMESAko Administraziño Kontseilluko Bilduko kompromisariuak** martitzenian prentsaurrekua emon eban, izandako azken billeraren gaiñeko iritzixa plazaratzeko. Azaldu ebenez, 2004az geroztik IMESAK 900.000 euro galdu dittu, "urte horretan egindako 'swap' izeneko finantza eragiketa arriskuaren ondorioz". Azken billeria azaruaren 22xan egiñ eban eta orduan jakiñ eban IMESAK Santander Bankuaren kontrako eragiketa ju-

dizialak martxan jartzeko abokatu enpresa kontratatzeo asmua zekala: "Bildu Administraziño Kontseillura ailegatu zanetik 3 billera egin dittugu, baiña honen barri azken billeraren euki eban kontseilluak (eta guk). Abokatuen txostenaren bittartez jakin dogunagaittik, IMESAK 2004ko urrian eta 2005eko otsaila eta martxuan permuta finantzarioko 3 kontratu siñatu zittuan Santander Bankuarekin, 8 millioi euroko kostupian. Interes tipo altuko


finantza produkto hónek SWAP moduan ezagutzen dira eta arrisku haundiko produktuak dira, euren bittartez irabazi zein galera haundixak etorri leikiazelako". Eragiketa iñorekin konsultau barik egiñ eta 8 urtietan ezkutuan euki dabela salatziarekin batera, ardura politikuak daguazela pentsatzen dabe eta, horregaittik, eragiketa egittian IMESAko presidentia zan Iñaki Arriola hurrengo Administraziño Kontseilluan azaltzeko eskaeria aurkeztu dabe udaletxian.

Horren harira oiñ udal inmobiliariaren presidentia dan Miguel de los Toyos alkatiak salaketa guztiak ukatu egin dittu, autu honetan "ez gauzak ezkutatzeko asmorik, ez illunkerixarik eta ezta erantzukizunen utzikerarik be" ez dala egon gafiñeratuta.



## Otarra barriz zozketatu da

**Sarixa jasotzeko epe guztiak agortuta**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen gabonetako otarra banatzeko zozketa barrixa egin zan eguazte-nian (hilaren 16xan) eta sarixa 1.944 zenbakixa dakanak eruango dau. Zenbakixa ...eta kitto!-ren buleguan saldutako loterixarekin batera banatu zan eta irabazliak datorren asteko eguaztenera arteko tartia eukiko dau alkartiaren bulegotik pasatzeko (Urkizu, 11 solairuartea) edo 943200918 telefono zenbakira deitzeko.







**Urteroko ohitturiari heldu zetsen Gureak-ekuek eta Auzokoak alkartekuek.**  
LEIRE ITURBE



## Gureak-ekuen bazkarixa umore giruan

Edarto bazkaldu eben Gureak-ekuek zapatuan, Auzokoak alkartekuek gonbidautu. Bazkarira Eibar Kirol Elkarteke David Mainz eta Raul Navas jokalarixak eta Gergori Prieto be jua ziran eta bazkalostian jokolari bixak arduratu ziran zozketatutako 56 oparixak bana-

ztiaz. Auzokoak alkartekuek euren esker ona erakutsi nahi detse klubari eta jokalarixak, "personalki izan eben jarrera parte-hartzaille eta eredugarrixagaitik". 56 opari hórrez gain, beste 44 poltsa banatu zittuen, zozketan zorterik izan ez ebenendako. Dantzaldixan

goxokixak, abanikuek eta bestelakuek ez ziran falta izan. Auzokuek alkartiak 1981az geroztik urtero Erregiak pasa eta hurrengo zapatuan antolatzen dau holako bazkarixa eta sukaldian eta bestelakuek preparamen 18 lagunek jardun eben zapatuan.

## autuan

### ARMERIXA ESKOLA

Eskoliaren sorreraren mendeurrena agurtzeko ekitaldixa hillaren 23an 12.00etan egingo dabe eskolan bertan. Bestiak beste Lehendakarixaren eta Eibarko alkatiaren parte-hartziak dagoz aurreikusitta eta Goruntz abesbatzak emanaldixa eskiduko dau. "Eskuadra Zaharra" museuaren inauguraziñua be egingo dabe.

### MUS TXAPELKETIA

Abian dagan Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketia Eibarren jokatu da, hillaren 27xan 16.00etan Klub Deportibuan. Eibarko txapeldunak Seguran otsailaren 23an jokatu dan Gipuzkoako kanporaketara pasauko dira. Informaziño guztia [www.euskalherrikomusfederazioa.org](http://www.euskalherrikomusfederazioa.org) webgunian dakazue.

### UNTZAGAKO JUBILAUAK

Urteko batzarra egingo dabe Untzaga jubilauek etxekeuak datorren asteko eguaztenian, hillaren 23an. Bazkide guztieri dei egin nahi detse 17.00etan hasiko dan billerara agertzeko.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilaberritza 20 - behe, eskume

**MUGICIA FUNERARIA MUGICIA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba  
Tanatorioa eta Erusketak laber  
Egaitzen (lugarreko) poligonon  
Partikular, erakunde eta enpresa erakundeentzako  
Kiook - Eskala - Urteurrenako ekitaldiak  
Euskal Herriko eskala ospitaleen bertan 24 ordu  
Nazio eta Nazioarteko tralajeak

**Mugicia Ehorzketa**

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**Contino-rekin MARIDAJE AFARIA**

Urtarrilaren 24an  
21.30etan  
Chalcha Jatetxean  
Prezioa: 50 € + BEZa

EMAN IZENA  
Chalchako barran  
943 20 11 26  
info@restaurantechalcha.com

ENOLOGOA: Jesus Madrazo / CHEF: Joseba Bergara

**CHALCHA** - n e a n

**MENUA**

APERITIBOA: Hegaluzearrekin betetako piperra modena ozpin-oliotan  
Vieira erreka barazki kreman urdaia eta truffarekin  
(ARDOA: CONTINO ZURIA, 2010)

Txingarretan egindako lupi zatiak lanpernen marinela saltsarekin  
(ARDOA: CONTINO GARNACHA %100, 2009)

Masail erregosia Errioxa ardoan patata pure krematsurekin  
(ARDOA: CONTINO RESERVA, 2006)

Era askotako gaztak  
(ARDOA: CONTINO GRAN RESERVA MAGNUM, 2005)

Pikatzeko: Te-pastak



asteko  
27,5  
datua

milioi euro gastatu ziren orain dela 30 urte izandako uholdeei modukoei aurre egiteko. Ego ibaia hobetzeko 16 milioi erabili ziren, gero beste 10 Ibur Erreka, Ubitxa, Txonta eta Matsariako errekaetara eta, azkenik, 1,5 erreka txikiagoetan.

## Gurasuak Martxan programia abian

Gizartekintza saillak Gurasuak Martxan programia abiarazi barri dau zazpigarrenez, Droga-menpekotasunen kontrako IV. Planari jarraituta. Asmua, gurasuak seme-alaberi ego-ki erantzuteko informazi-ñua eukitzia da eta edukizak seme-alaben adi-ñari begira moldatuta-kuak dira. Martitzenian egin zan lehelengo saiu eta hitzaldixak otsailla eta martxua bittartian emongo ditue San Andres, Urkizu, La Salle-



Isasi, Aldatze, Arrateko Andra Mari eta Mogel Isasi ikastetxietan. Bigarren maillako hezkuntzan eta batxillerguan be eskinduko dittue saiuak, Itzio BHI, Ignazio Zuloaga institutuan, Aldatzen, La Salle-Azitainen eta Iturburun. Hitzaldi guztiak irekixak dira eta gurasuak edozeiñ ikastetxera juateko aukeria izango dabe. Iaz 8 ikastetxek hartu eben parte programan eta hitzaldixetara 170 aitta-ama juan ziran.

## Alfako bihargiñak Kutxabank-en katiatuta

Aurreko barixakuan, Alfako bihargiñen hirugarren greba egunian, manifestaziñua egiñ eben Untzagatik hasitta, baiña Urkizura aillegauta bertan geratu eta Kutxabankeko bulegora sartu ziran, euretako batzuk katiekin bertako altzarixetara lotuta. Eki-

menarekin Kutxabanke best 12 kajarekin batera Alfaren egoera ekonomikuaren aurrian izaten diharduen portaeria salatu nahi izan eben: Alfa Taldiak 115 milioi euroko zorra daka eta hortik %70 banko diferentieri zor detse, gehixenbat Kutxabanki.




Kajen portaeria salatu nahi izan zeber Alfako bihargiñak. SILBIA HERNANDEZ



Lau eguneko ikastaria izango da musutruk emongo dana.

## Sendian programako ikastaria otsaillian

Menpekotasunen bat daken pertsonekin bizi diranendako ikastaria antolatu dabe, zaintzailliak menpekotasuna dakan famelixako kidiaren emozioñueri zelan aurre egiñ ikasteko. Bestiak beste, honako edukizak landuko dittue: emozioñuen funziñua eta norbere buruarekiko zaintzan, duelua, autoestima indartzia eta hondatze emozionala prebenitzia. Ikastaria otsaillaren 5, 7, 12 eta 14an emongo dabe, 15.00etatik 17.30xetara Portalean (3. solairuan). Interesa dakanak urtarillaren 30era arte izango dau eskaeria Pegoran egitteko aukeria. Ikastaria musutruk da.




## MARIA CHINCHURRETA ASCASIBAR

(2012ko abenduaren 29an hil zen)

**"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez"**

**GERO ARTE, AMA. AGUR, AMAMA.**

*Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*



NAPOKA IRIA (Miren Narbaiza & Ander Mujika)

## “Agertoki aproposa da Coliseoa gure lanaz gozatzeko”

*Datorren barixakuan, hilaren 25ean, kontzertua eskainiko du Coliseoan Miren eibartarrak eta Ander elgoibartarrak osatutako bikoteak. 2005ean sortu zuten Napoka Iria eta handik urtebetera lehenengo maketa aurkeztu. Bigarrena 2008an kaleratu zuten eta hori aprobetxatu zuten Japoniatik jira egiteko. 2011n, bestalde, “Lehertarazi edifizioak” aurkeztu zuten. Hurrengo lana udarako prestatzeko asmoa dute.*

**- Zelan aurreikusten duzue Coliseoan eskainiko duzuen kontzertua?**

Aukera berezia moduan. Toki aproposa da gure lana erakusteko. Aurretik ere jo dugu Eibarren, baina agertoki horrek erakargarriago bihurtzen du, gure musika entzutea nahi duen edonorentzat aproposa.

**- Zelako kontzertua emango duzue? Zein abestirekin?**

Ordubete pasatxo iraungo duelakoan gaude, hiruzpalau kantur berriekin. Gurekin jardungo dute Maite Arroitauregik txeloarekin eta Andoni Mujikak bajoarekin ere (*azken hau Anderren anaia*). Apirilean hurrengo lana grabatzera sartzeko asmoa dugu eta, horregatik, ez dugu zuzeneko beste askorik eskainiko hurrengo hilabeteotan. Gure azken diskoa erosteko aukera ere izango da.

**- Zuzenekoari garrantzi berezia ematen diozue, ezta?**

“Ez diogu inori jarraitzen. Musika eta letrak gureak dira”

Orain arte askoz gehiago zentratu gara horretan grabaketan baino. Horrela gozaten dugu eta! Kontzertu mordoa eskaini dugu Napoka Iria sortu genuenetik eta bereziak izaten dira guretzat: tentsio gehiago nabaritzen dugu horrelakoetan.

**- Baduzue kontzertu edo agertoki berezirik, gogoan hartzeko modukorik?**

Poloniako Poznan hirian eskaini genuena. Atzerrian izateaz gainera, entzutera joan zen jendea guztiz entregatu zen. Guri ere berotasun horrek harrapatu gintuen eta kontzertu bikaina izan zen. Horrez gain, diskoak ere ondo saldu genituen. Badira beste batzuk, Napoka Bandarekin azken hilabeteotan eman ditugunak: Tolosako Bonbereanean, Gasteizeko Parralekoan... (*hamar kontzertu eskaini dituzte Willis Drummond eta Andra-ka musika taldeekin*).

**- Beste talde batzuekin batera jotzeko bidea gustoko duzue?**

Asko, batez ere horrelakoetan ikasteko aukera izaten baituzu; gainera, musika ulertzeko beste ikuspuntu bat eskaintzen dizute beti eta hori aberasgarria da.

**- Baduzue gustoko talderik? Nondik elikatzen zarete musika arloan?**

Izango da jarraitzen dugun

biderik, baina gu ez gara konsziente. Norbaitek eragingo digu edo nonbaitetik zeozer hartuko dugu, baina ez dugu erreferenterik. Gerora konturatu gaitezke, akaso, esanez ‘horiengatik horren urruti ere ez gaude’, baina ez diogu inolako ereduri jarraitzen. Hori bai, musika asko entzuten dugu eta zeozer itsatsiko zaigu.

**- Eta letretan, zeinen letrak erabiltzen dituzue?**

Inorenak; gureak dira. Izan da kasurik hirugarren baten letrak erabili ditugunak, baina normalean guk eginak dira. Musikarekin moduan, ez diogu autore jakin bati jarraitzen idazterakoan.

**- Zelan ikusten duzue musikaren egoera Euskal Herrian?**

Xekatuko den jendea beti egongo bada ere, gure egoera estatuan ematen dena baino hobea da. Talde asko dago eta baita jotzeko azpiegitura ez ofizialak eskaintzen digutenak ere: elkarteak, gaztetxeak... Jotzeko errazago dugu eta aberatsak gara taldeetan eta estiloetan. Gure arteko harremanak ere bikainak dira, inbidiarik gabekoak.

**- Hemendik kanpo, non jo izan duzue?**

Lehen esanda moduan, Polonian. Japonian izan ginen lehen diskoarekin. Bartzelonara ere jo-

an gara... Orain dihardugu hurrengo bira osatzen, datak eta zehaztuz: Madrilen eta Bartzelonan izango gara martxoan, begira gaude Italian eta Frantzia hainbat kontzertu lotzeko...

**- Zuen estiloa definitzeko gauza izango zinateke?**

Rock-folk akustikoa, akaso? (*buruari hainbat buelta eman ondoren*). Ez da erraza eta lotsa ematen digu esateak. Zeozer esatekotan, ‘bi gitarra gainean ahotsa’ botako genuke. Rock-a, bai; baina gurea ez da musika herrikoa.

**- Zein proiektu dituzue esku artetan, epe laburrera begira?**

Ilustrazioa eta musika uztartzen dituen “Itzal itzazu argiak” proiektuan hartuko dugu parte: blues-aren mitologiaren inguruko elkarlana da eta bi kantu prestatu ditugu: “Why don’t you do right” eta Karen Daltonen beste bat. Lehen esan moduan, hemendik gutxira grabatzen hasiko gara.

**- Hurrengo kontzertuak ere lotuta izango dituzue, ezta?**


*Boteprontoan* esateko, otsailaren 8an Oñatin izango gara, 16an Agurainen... Eta martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Julieta Benegasekin joko dugu Getariako Balenziaga Museoa.

Aurreko asteko barixakuan presentau zittuan Miguel de los Toyos alkatiak iaz auzorik auzo egindako billeren gaiñeko estadistikak eta hórrekin pozik agertu zan: "Herrixa 7 sektoretan banatuta daukagu eta zona bakotxeko billera bana egin dogu, bertan bizi diranekin. Billerak iazko urtiaren amaiera aldian egin genduazen. Izan be, billeretan jasotako proposamenak hurrengo urtian egin biharrekuak planifikatzeko jarraitzen dittugu. Alde horretatik, 2011n jasotakuen %65 iaz bete dittugu, %15 betetzeko bidian dagoz eta gaiñontzekuak albo batera laga dittugu, justifikautako arrazoiengaittik". Barritasuna billeretan Maixa herritarren parte-hartzerako mahaikuak

bertan egotia izan da. Billeretara 465 lagun juañ dira eta totalian 225 proposamen jaso dittue laster argittara emongo dittuen aktetan: 116 (%51'56) Zerbitzu arlokuak dira, 12 (%5'33) alkatetzarekin lotutakuak, 42 (%18'67) Udaltzaingoarekin zerikusixa dakenak, 21 (%9'33) Hirigintza arlokuak eta 34 (%15'11) obra atalekuak. Badagoz billera guztietan errepikatzen diran hainbat kontu. Kalietako garbittasunarekin lotutako kejak izaten dira, batez be txakurren kakak ez jasotziak eragitten dittuan usaiñ eta bestelakuak. Eta hórretxekin batera, katueri jatekua emoten detsen tokixetan katu mordua batzen juaten dira eta hórrek be zikindu egitten dabelako.

## 225 proposamen auzorik auzo

### BEHE-ERDIALDIA



Han inguruan bizi diranak Errebalgo proiektuaren eta Bittor Sarasketako epaitegi zaharren gaiñeko galderak bota zittuen billeran. Akzesibildadiarekin lotutako kejak be entzun ziran: Pagaegi-Jardiñetan norantza bikoitzak eragindako trabak eta Aldatze kaliañ aldapan gora erroberadun aulkixekin igotzeko ezintasuna izan ziran aittagarrixenak. Telefonica eta Binguaren bittartian igogaillua egitteko asmuarekin zer pasau dan eta Jardiñetan, institutura eta Hizkuntza Eskolara doiazenendako aparkatzeko tokirik ez daguala-eta, lurraspixan parkiña egitteko proiektua zertan dan be galdetu eben. Eskatutakuen artian, Matxari-Gaiñeko repetidoriak osasunarendako kaltegarrixa izan leikian jakitteko estudixua, Bidebarrietan, San Agustinetik Rialtoraiño doiazen etxietako lorategixak hobeto zaintzia eta Txomon argi gehixago ipintzia izan ziran inportantienak.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 50 / PROPOSAMEN KOPURUA: 29**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (13), Alkatetza (3), Udaltzaingua (6), Hirigintza (4) eta Obrak (3).**

Herriko erdialdian bizi diranen keja gehixenak tabernen jardueriak eragindakuak dira, trafikuaekin batera. Batez be tabernetako musikiak sortzen daben zaratiarekin eta taberna kanpuan ipiñittako terraza eta bestelakuak kaliañ ibiltzeko orduan eragindako trabekin kejatzen dira. Horrekin batera, Calbetonetik Txikitara igotzeko eskillaretan jendiak txixa egitten dabela-eta hasarre dagoz. Hórrek entzunda, tabernetako zaratia neurtzera 30-40 bat aldittan juañ dirala eta kasu batzutan ekipuak prezintau dittuela esplikau eben, txixa kaliañ egiñtiagaitik 40 bat isun ipiñi dittuela gaiñeratuta. Hortik aparte, peatonalizaziñuaren ordutegixan kanbixua proposau eben: domekan 21.30xetan amaitzia, eta ez oiñ arteko moduan 22.30xetan. Isasi, San Juan eta Juan Gisasolan bigarren illaran aparkautako kotxiekineñ neurrixak hartzia be eskatu eben.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 45 / PROPOSAMEN KOPURUA: 25**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (5), Alkatetza (4), Udaltzaingua (9), Hirigintza (4) eta Obrak (3).**


### ERDIALDEA



Urkizuko dorrietan eta beste arkupe batzuetan egoten diran gaztiak, euren lokalak eta gaztetxiak berak eragitten dabe keja gehixen hamen inguruan, eragitten daben zikinkerixia eta zaratarengaittik. Txontakuak euren barrixua txukuntzeko eskatu eben. Zaratak aittatuta, Estaziñuan geldirik, konpontzen egoten diran trenenak eta Iparragirren autopistiak eragindakuak be hasarre dakez inguruan bizi diranak. Eskaeren atalian, Lidl inguruko zubixaren akzesibildadia hobetzia eta ibilgailluak motelago ibiltzeko bandak barrizatzia eskatu eben. Aurteneñ Beheko Tokiko plazoletia barriztatuko dabela argittu eben udal ordezkariak (595.000 euroko inbersiñua dake aurreikusitta).

**BILLERARA JUANDAKUAK: 110 / PROPOSAMEN KOPURUA: 56**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (38), Alkatetza (4), Udaltzaingua (5), Hirigintza (7) eta Obrak (2).**

### BEHEALDIA






Jazinto Olabeko parkia urbanizatzeko proiektuaren gaiñeko informaziñua eskatu eben billerara juandakuak eta aurtengo aurrekontuko zirriborruan horretarako 350.000 euro aurreikusita daguzela erantzun zetsen. Beste 80.000 euro sartu dittue borradorian San Kristobalen (2, 4, 6 eta 8 zenbakixetan) aldapa barrixa egiteko. Zezenbide kalia, Artola jatetxiaren atzetik doian partian barandillia eta labantzen ez daben lurra ipintzia eskatu eben, akzesibildadia hobetzeko. Eskaera gehixago be egin ziran: Seguridade Sozialaren parian daguan zulua konpontzia, Aizarnako sasixak garbitzia eta Romualdo Galdosen daguazen usaiñeri konponbidia ipintzia. Urtietako beste eskaera bat be ekarri eben gogora: Plan Nagusixak jasotzen dabenari jarraituta, Guardia Zibillaren kuartelaren eta zezen plazaren artian berdegunia sortziana.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 55 / PROPOSAMEN KOPURUA: 19**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (11), Alkatetza (0), Udaltzaingua (4), Hirigintza (2) eta Obrak (2).**

## IPURUA



## URKI



Kale horretan eta inguruan bizi diranen billeran kezka nagusiña Errekatxun urbanizaziño barrixa egiteko proiektuak eragiñ eban: Errekatxuberri promotoriak urbanizaziño barrirako proiektuari 2012ko udazkenian ekin bihar zetsan eta oindiok ez dira ezertan hasi. Gaiñera, proiektuak Errekatxu 1, 3 eta 5 zenbakixeri eta Sansaburuko 1 eta 3 pegoreri eragingo detse zuzenian eta bertakuak informaziñorik ez dakela kejavu ziran. Horrekin batera, Txaltxa Zelaira txakurak eruaten dittuela-eta, usaiñ eta zikinkerixiagaittik parkia ezin leikiala erabilli kejavu ziran. Eta merkadillua Txikitotik Txaltxa Zelaira pasatzeko eskaeria be egiñ eben.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 45 / PROPOSAMEN KOPURUA: 35**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (26), Alkatetza (0), Udaltzaingua (5), Hirigintza (3) eta Obrak (1).**

Etxe barrixak egitten juan diran neurrixan auzo barruko trafikua gora egin dabela kejavu ziran auzokidiak. Akzesibildadiari begira, Ospital ingurutik Legarreko dorreraiño igogaillua eskatu eben eta Arrate Bidetik bariantera sartzeko buelta haundixa emon bihar dabela, hori konpontzia be nahi dabe. Mekolan, lehenago agindu zetsenari jarraitu eta ibilgailuendako sarrera murriztua ezartzia eskatu eben. Vildosola txaletaren ingurua garbitzia be eskatu eben, baiña laster hori dana barriztatuko dabela aurreratu zetsen udalekuak. Trenaren zariak be keja bat baiño gehixago eragiñ eban.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 60 / PROPOSAMEN KOPURUA: 36**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (16), Alkatetza (0), Udaltzaingua (11), Hirigintza (1) eta Obrak (8).**


## LEGARRE



Batez be aparkatzeko toki gehixago eskatu eben eta, hori lortzeko bidian, eskola aldameneko mendoitza eraustia eta parrokiara aldameneko harmailak bertan behera botatzia be proposau eben. Akzesibildadia hobetzearren, Amañako pasialekuaren amaieratik Tiburtzio Anituara igogaillu publikua ipintzia be eskatu eben eta, horrekin batera, Ziriako Agirre kalia ranpak eraikitzia, umiak zebrabidetik pasau ahal izateko. Eskaera zerrendiarekin amaitzeko, Wenzeslao Orbeako parkia hobetzia eta umiendako daguazen ziburu-zaurak konpontzia be eskatu eben.

**BILLERARA JUANDAKUAK: 100 / PROPOSAMEN KOPURUA: 25**  
**ARLOKA: Zerbitzuak (7), Alkatetza (1), Udaltzaingua (2), Hirigintza (0) eta Obrak (15).**

## AMAÑA



# 465 lagun juan dira billeretara

**Urrian zabaldu zuten Laztantzxo haurtzaindegia Karmen kalean, lehenago KZgunea egon zen lokalean Nerea Fernández mutrikuarrak eta beste bi elgoibartar gaztek. Hiru hilabeteko umeekin hasi eta sei urtera bitartekoak hartzeko moduan daude hiru gazteak, eta euren beharra zelakoa den azaldu digute.**

**- Nola animatu zineten Eibarren haurtzaindegia zabaltzera?**

Hirurak elkarrekin ikasi genuen Haur Hezkuntza eta, ba-koitza bere aldetik beharrea jardun eta gero, lan barik geudela ikusita hiruren artean haurtzaindegia martxan ipintzea pentsatu genuen. Eibar aukeratu genuen hemen horrelako zerbitzuaren inguruko eskaera zegoelako. Horregatik, ekainean lokala moldatzeko beharrei ekin genien eta urriaren 1ean ateak zabaldu genituen.

**- Zaila da horrelako proiektuari heltzea?**

Lanean, esperientzia aldetik arazorik ez daukagu, aurretik ere honetan jardundakoak garrelako eta, beraz, esperientzia badaukagu. Arazo handiagoa proiektua abiarazteko orduan aurkitu dugu, diru-laguntza eta bestelakoak eskatu arren ez digutelako inon lagundu, ez daki-gu krisiaren eraginez-edo izango den.

**- Eta nolakoa da zuen lana?**

Oso esker onekoa. Hasieran, egokitzapena egiteko unean piskat kostatu egiten da, baina berehala dator aldaketa, umei maitasuna hartzen diezu...

Orain arte guraso guztiak oso pozik daudela esaten digute eta umeak eta gu ere gustora gaude. Hona datozen umeekin garapen integrala lortzeko ekintza ezberdinak lantzen ditugu: ipuinak, kantuak, jolasak... Bestalde, gurasoen erosotasunerako, astelehenetik barixakura 07.30etatik 19.30etara zabaltzen dugu eta nahi izanez gero gurasoek esandakoan umea jaso eta bueltan eraman dezakegu. Umea jaso eta ekartzeko, berriz, ez dago ordutegi jakin bati jarraitu beharrik. Haurtzaindegia buruz gehiago jakin nahi duenak <http://guarderialaztantzxo.wordpress.com> webgunera jo dezake.

**- Alde handia dago txikitatik haurtzaindegira joandako eta joan ez den umearen artean?**

Oro har haurtzaindegian egon direnek oso modu positiboan baloratzen dute esperientzia. Beste umeekin erlazionatzeko orduan ohitura handiagoa izaten dute, kantu eta bestelakoaren inguruan interes handiagoa erakusten dute, agintzen zaiena errezago betetzen dute... Gurasoek eurek hala esaten digute.



Nerea Fernández  
(LAZTANTXO HAURTZAINDEGIA)

**"Geurea oso esker oneko lana da"**



- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**



K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33      ZULOAGATARREN, 7

## Eibarko ikasleak Madrilerara bidaietan

**I**gnazio Zuloaga institutuko 20 ikasle eta hiru irakasle Madrilen izan ziran bidaietan abenduan. Besteak beste, ailegatu eta ia jarraian María Guerrero antzokian Galdós-ek idatzitako "Doña Perfecta" lanaz gozatzeko aukera izan zuten. Hurrengo egunean, berriz, Pradoko museo eta "Madril kulturaleko" hainbat toki bisitatu zituzten. Sarai Korta eta Haizea Arizaga ikasleek azaldutakoari jarraituta, museoa "ikusgarria"

begitandu zitzaien: "Bertako artelanen mugagabeko edertasuna dastatzearen pribilegioa izan genuen, Velázquez, Goya eta El Greco bezalako goi mailako margolarien lan bikainak bertatik bertara ikusita. Gauean, berriz, festa giroa gerturatzeko tartea ere hartu genuen". Azken uneraino etekina atera zioten irteerari, bueltako bidaietan autobusa Pedrazan geratu eta institu-



tuak izena zor dion artistari eskainitako museo, 500 urte-tik gorako gaztelu zaharberri-tuan dagoen Zuloagaren museo bisitatu zuten. Ikasleen berbetan, "Madril penarekin

aguru" zuten, "asteburu ezin-hobea, ahaztezina" eman baitzuten bertan. Horregatik ikastetxeari eskerrak eman nahi dizkiete "horrelako aukera aparta eskaintzeagatik".



## Ekintzaileari laguntzeko metodoa lantzen

**G**abonen inguruan amaitu zuten Ermuko Izarra Centre-n ekintzaileei laguntzeko metodologia lantzeko ikastaroa. Klaseak Jose Luis Araujo Ermuko Udaleko enplegu zinegotziak, Jose Miguel Oskoz Tknika-ko zuzendariak eta Tknika-UrratsBat programaren berrikuntza arloko Samuel Triguerok eman dituzte, ikasturtearen lehenengo hiruhilabetekoan. Bertara joandakoen artean adin tarte zabal-hartzen badute ere, ikastaroan landutakoak ondo baino hobeto etorriko zaie Urratsbat programan parte hartzen duten

gazteak prestatzeko orduan, ikastetxe ezberdinetan programaren dinamizazioaz arduratzen dira-eta.

Ikastaroaren helburu nagusia ekintzaileari modu eraginkorren laguntzeko metodologia egokia irakasle-dinamizatzaileari eskaintzea zen eta horretarako, besteak beste, ekintzaileari laguntzeko prozesuan dauden fase ezberdinetan erabili daitezkeen teknika eta baliabideetan sakondu dute. Horrekin batera, prozesuko gakoak identifikatu eta dinamizatzailearen "kanpo-laguntzen" mapa osatu zuten ikasleek.

### Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA


☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

- |                           |                                      |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia             | 10 Barne Medikuntza                  |
| 2 Zirurgia                | 11 Radiologia                        |
| 3 Dermatologia            | 12 Urologia                          |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia                     |
| 5 Análisi Klinikoak       | 14 Koloproktologia                   |
| 6 Ortodontzia             | 15 Erizaintza                        |
| 7 Otorrinolaringologia    | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria               | 17 Foto-depilazio Unitatea           |
| 9 Psikiatria              |                                      |

### f

### Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beltatik Funeuskadi Eibar:  
Ostia, 27

Bulegoa:  
Eibarko, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

GRUPO  
**funeuskadi**  
El primer grupo funerario de Euzkadi

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Montes •



# GREMIOEN



## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
**Instalakuntzak eta konponketak antenak - telebista**  
**Bidebarrieta, 37** Tfnoa. 943 20 05 08  
 balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

Tfnoa. 943-530356  
 Mobilak 688-674242  
 Barrena, 21 - 3. A  
**ALBERTO ELEKTRIZITATEA**  
 ALBERTO DASILVA FIDALGO  
 DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES  
**INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA**

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**  
 Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua  
 Tfnoa. 943 254 615  
 Mobilak 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

Ego Gain z/g  
 Tfnoa. 943 12 73 50  
 Faxa. 943 20 73 60  
 www.trinmer.com  
**trinmer**  
**TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK**

**ELECTRICIDAD CUADRA EC**  
 SERVICIOS DE ELECTRICIDAD  
 TELEFONO 943 70 08 95  
 FAX 943 82 00 27  
 WWW.ELECTRICIDADGURIA.COM

**TREJO GARBIKETAK S.L.**  
 Tel: 943-752557  
 Faxa: 943-752556  
 16 Postakutxatila - Soraluze  
*Garbiketa eta mantenimendua*

## AROTZAK

**IÑAKI**  
 Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak  
**Milaflores 10** Tfnoa. 943 20 35 55

**GURIA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
 Muntaiak eta proiektu elektrikoak  
 Matsaria 2 7. pabilioa  
 Tel. 943 70 08 95  
 Fax. 943 82 00 27  
 www.electricidadguria.com

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**  
 — Hodi-libratzeak  
 — Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin  
 — Ur ateratzea ufaletan ondoren  
 www.desataxcos.com  
**LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222**

**SUKALDE ALTZARIAK**  
**AROTZEGIA**  
*Iparragirre Anaiak*  
 F. Calbetón, 4 behe Tel. 943 20 29 27  
 Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
 Mobilak: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
**l Barra** 677 51 24 62  
 943 20 06 97

**ulmar S.L.**  
**aluminiozko eta PVC-ko arotzedia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar**  
 Txonta, 30 - 1. eta behe  
 Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
**ERAKUSKETA**  
**EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)**



# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

– Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

**Jardiñeta, 25 - behea**  
620 060 104 (Ernesto)  
600 465 789 (Fran)



**irazabal**  
JOSU MATEO ERREFORMA, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

azitain industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA



Gasa  
Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Fontanería Jardines**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

**Jardiñeta, 11 B**  
[fontaneriajardines@euskalnet.net](mailto:fontaneriajardines@euskalnet.net)



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94

**T. Etxebarria, 8 - behea**



● Nexa  
Autocolor

● Pintura  
industrialia

● 3M  
produktuen  
banatzailea

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

**MATSARIA, 34 behea - A**  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

ERREKATXU, 3<sup>an</sup>  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**

[c.acha@euskaltel.net](mailto:c.acha@euskaltel.net) eta faxe:  
ERAKUSKETA: Arikitzaneko Zubia 943 20 39 03

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

**Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-**  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)



Aitor Oregi eta Mikel Guerra selekzioarekin.

## Eibar Eskubaloia Euskadiko Kopatik kanpo

Mailen arteko aldea igarri zen Ipuruan jokatu-tako partiduen hainbat pasartetan eta Somos Eibar Eskubaloiak amore eman behar izan zuen goragoko mailan diharduen Errenteriarako Ereintza Aguaplast-en aurrean. Amaierarako gauzak asko estutu zituen Eibarko taldeak, baina aurretik nagusitasuna erakutsi zuten errenteriarrek, batez ere lehenengo zatian. 25-27ko emaitza horrekin, Somos Eibar Eskubaloioak Euskadiko Kopatik kanpo geratzen dira. Otsailaren 2an ligari berriro ekin aurretik, lagunarteko pare bat partidu jokatu dituzte taldeak (bihar, 17.00etan Zumaian).

## Bost taldeen arteko lehia foball zaletuan

Inoiz baino borrokatuago dago foball zaletuaren Kiroljokoa liga, lehen itzuliko azken jardunaldiaren ondoren bost talde baitaude hiru puntuko tartean. Alkideba da lider berria, 30 punturekin, Garajes Garcíari 3-1 irabazi eta gero. Lidergoa galdu duen azken honek 29 ditu, Txokok 28 (4-1 irabazi zion Fontanería Mujikari) eta Durangok (7-0 Aretori) eta Koskor azken txapelkunak (2-1 Tankemans-i) 27na. Hurrengo jardunaldian neurketa errazak (alde aurretik behintzat) izango ditu boskote horrek.

## Binakako txapelketako bikote onenak Astelenan

Txapelketako partidu guztiak irabazi dituen bikote bakarrak (Bengoetxea VI.a eta Beroiz) euren atzetik sailkatuta dagoenaren (Xala-Barriola, partidu bakarra galduta) aurka jokatuko du domekan Katedralean. Liderrek lau partidutatik hirutan 22-21 irabazi dute, baina erakutsi dute azken tantoa egiten dakitela. Jaialdia Jaunarena-Pascual eta Ezkurdia-Laskurain bikoteen arteko neurketarekin hasiko da eta Ongay eta Mendizabal III.aren arteko buruz-buru-koarekin amaituko.

### Afizionatu mailako bost partidu

Asteburu bete izango dute Klub Deportivo ordezkariek. Gaur, 19.15etan hasita, hiru partidu jokatuko dira Astelenan: infantiletan, Ibarluzea-Iriondo Alegiako bikotearen aurka; jarraian,



Xala eta Barriolak laugarren garaipena bilatuko dute.

Euskadiko Ligan, Unamunzaga-Bengoetxeak aurre egingo die Markinako ordezkariei (aurreko asteburuan garaipen bikaina eskuratu zuten Tolosan, Labaka-Galarragari 22-17 irabaziz); azkenik, jubeniletan, Zubizarreta-Agirresarobe bikoteak Alegiako izango dute aurkari. Ipurua kiroldegian, bestalde, kadette-tan, Arrillaga-Urionabarrenetxea Arrasatekoen aurka izango da, eta jubeniletan lau eibartarren arteko jokatuko da: Narbaiza-Ruiz vs Velasco-Larrauri.

## Eibar Rugby Taldeak amaitu du lehen itzulia

Ondo kokatuta daude Txema Isasaren mutilak denboraldiaren erdira heldzean. Azken jardunaldian L'Hospitaleten 26-23 galdu arren, Independiente liderrarengandik zortzi puntura bakarrik daude eibartarrak, sailkapeneko 4. postuan. Hurrengo jardunaldian, bigarren itzuliko hasierakoan, Eibar Rugby Taldeak kanpoan jokatuko du berriro, oraingoan Sant Cugat-en.



### Harrobia sendo

Aurreko domekan Unben egindako kontzentrazioan, benjamin mailakoek jokatutako hiru partiduetan irabazi zituzten, alebina hirutik bi eta infantilak, jokatutako neurketa biak galdu arren, egindako progresioa erakutsi zuten.

## BI KASU EZBERDIN

Oraingoan gainera, arraroa izan arren, emakumeak izan dezake gizezkoak baino etorkizun oparagoa.


**GARBIÑE MUGURUZA** tenislariak Serena Williams bere idoloarekin jokatu du lehen aldiz: Australiako Openeko bigarren txandan izan da eta, normala denez, galdu egin du. Hala ere, Jose Antonio Muguruza eibartarraren alaba tenisaren goi mailan dugu eta badirudi karrera bikaina egiteko moduan dagoela.

Bestaldekoa da **AITOR HERNÁNDEZ** Ermuko txirrindulariaren egoera. Ziklo-kros denboraldi bikaina egin du sasoi batean Debarrenan jardun zuen Aitorrek, 17 garaipenekin (inoiz lortutako markarik onena) eta aurreko domekan Espainiako txapela jantzita. Hala ere, munduko txapelketara zaila du joatea eta baita kirolean jarraitzea ere, diru faltan. Zorionak biei eta suertea izan dezatela hemendik aurrera.

## Jonan Rodríguezek Mugerza Memoriala amaitu zuen

Ez da erraza izaten Elgoibarko proba hori amaitzea, lasterketa-buru doanak itzulia kentzen badizu kanporatu egiten zaituzte eta. Horregatik du meritua Klub Deportiboko ordezkariak, munduko korrikalari onenengandik ihesika, Kipruto 19 urteko gaztearen hatzaparretan erortzeko zorian izan zelako; bai-

na, 49. postuan helmugaratuta, hamar euskaldun baino ez zituen izan aurretik eibartarrak. Ander Gisasolak, Julen Teránek, Jon Astigarragak, Andoni Egurolak, Jon Escolar-ek, Markel Gutiérrezek, Unai Solagaistuek eta Eneko Osorok osatu zuten Deporreko parte-hartzaileen zerrenda Elgoibarren.



Rodríguez domekako proban.  
RAMON BEITIA

## Kalamuako judoken asteburu betea

Alebin mailako judoek Tolosako Usabal kiroldegian jardun zuten zapatuan eta, Gariokitx Del Barrioren aginduetara, urrezko hiru

domina (Asier Núñez, Asier Sebastian eta Beñat Mardaras) eta zilarrezko (Nahiara Fernández) eta brontzezko (Maddi Beraza) bana lortu zituzten. Egun berean, Julen Ramón eta Nekane Muguruza Burgo-seraino joan ziren han kadete mailako Espainiako Kopa jokatzera. 260 neska-mutil bildu zituen lehiaketan, Muguruzak brontzezkoa eskuratu zuen 63 kilotik beherakoen artean.

Bihar, bestalde, Julio Gallego eta Manu Agirre Madrilerak joango dira jiu-jitsu irakasleen ikastarora, gero espezialitateko gerriko beltza titulua lortzeko epai-mahaietan jarduteko.



## Eskalada eta eski ikastaroak otsailean

Otsaileko lehenengo asteburuan (2an eta 3an) izotz eskalada ikastaroa eskainiko du Gipuzkoako Mendi Federazioak Bielsan eta hurrengo asteburuan (hau da, otsailaren 9an eta 10ean) elur mota guztietako eski tekniken. Azken hori Luz Ardiden - Barèges - La Mon-

gien izango da eta, biratze oinarrikoekin batera, eski konbentzionaleko, carving erako eta elur gogorretan eta bigunetan biratzeko teknikak eskainiko dira. Informazio gehiagorako, interesatuek <http://www.gmf-fgm.org> hel bidera jo dezakezue.



## berriak

### SASKIBALOIA

Gure herriko talde biek galdutako egin zuten azken jardunaldian: Ruibalek 68-63 Zarrutzen eta Katu-Kalek 76-43 CD Internacionalekin Donostian. Emaizta horiekin, Ruibal Gipuzkoako 2. mailako sailkapeneko 6. postuan dago (liderrarengandik hiru garai-penera) eta Katu-Kale 9.ean 3. mailako sailkapenean.



### WATERPOLOA

Urbat-Urkotronik waterpolo taldeko lau jokalarik, infantil mailakoak, teknifikazio jardunaldia izan zuten Gipuzkoako selekzioarekin eta erraz nagusitu zitzaizkien bizkaitarrei. Unai Etxaburu, Joseba Urkia, Izei Sologaitua eta Igor Sainz izan ziren selekzioarekin eta, jokatzear gain, hiru gol sartu zituzten armaginek.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ☎ 943 201095 fax: 943 202564

**Radio Eibar**

CADENA SER


**104,0 FM**

**Iradi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



## **RAMON LIZEAGA** (gaztagilea) **"Jendea harritu egiten da dagoen aukera zabalarekin"**

*Datorren otsailaren 12an gazta-dastaketa egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren barruan, Ramon Lizeaga gaztagilearen eskutik 19.00etan hasita. Gazta aintzinako errezetei jarraituta egiten aditua den Lizeagak Eibarrera 20 bat gazta ekarriko ditu dastatzeko. Izen-ematea urtarrilaren 22an zabaldu eta otsailaren 5ean itxiko da (5 euro bazkideentzat eta 6 euro besteentzat), ...eta kitto!-ko bulegoan (Urkizu, 11 solairuarean) edo 943200918 telefono zenbakian.*

**- Ardo-dastaketak nahiko hedatu dira azken urteotan, baina nolako da gazta-dastaketa bat?**

Saioa nahiko modu ludikoan eskaintzen ahalegintzen naiz, jendeak gaztak disfrutatzen. Mahai baten gainean moeta ezberdinetako gaztak ipintzen ditugu eta lehenik eta behin jendea jaiki arazi egiten dugu, gaztak ikutu eta usaintzeko, probatzen hasi aurretik. Azken saioan 22 erreferentzia ezberdin izan genituen, denak Euskal Herrikoak. Beraz, horrelako tabla luzearekin gazta suabenetik hasi eta gogorra goetara pasatzen joaten gara. Amaieran jendeak etxean 3-4 ezberdin izateko aukera daukala ikusten badu pozik geratzen naiz.

**- 22 gazta ezberdin!**

Hala da, bai. Jendea harritu egiten da. Azken batean, gaztagile txikiak jendearengaino ailegatzea oso zaila egiten zaigu, gure gaztak supermerkatutako apaletan galdu egiten dira eta askori ezezagunak egiten zaizkio. Azkenean ezagunen egiten zaiona erosten amaitzen du.

**- Nola hasi zinen gazta egiten?**

Jakinmiñak bultzatuta, ni kaletarra naiz eta. Artzai eskolara joan eta Aiako baserri batean praktikak egiten egon nintzen. Bertan 6 urte eman nituen morroi. Behin ikasketak amaituta, bakoitzak bere proiektua garatzeko laguntza jasotzeko aukera dauka eta nerekin jardun zuen teknikaria gaztazalea zen. Ikerketa sakona egin genuen, besteak beste errezeta zaharrak berreskuratzen eta bide berriak aztertzen.

**- Gaztak aintzinako errezetei jarraituta edo gaur egun egiteko moduari jarraituta egin alde handia dago?**

Ezberdintasun handienak gazta egiteko garaietan eta ontzean ematen dira. Gaztagintzan, gradu baten aldeak oso emaitza ezberdina izatea eragiten du, aldaketa handia dago mamitza 31 gradutan edo 32 gradutan egin.

**- Zuk gazta moeta ezberdinak egiten dituzu. Nolakoak dira?**

Gazta freskoetatik hasi ("Philadelphiak"-en itxurakoak) eta prentsaturakoak, urdina, azala erretakoa... aukera zabalago benetan.



## **Lagun Taldearen Telenobelak**

**Lagun Taldeak urteroko moduan dantza eta musika ikuskizuna prestatu du**, Hezkuntza Esparruan taulartzeko. Arrakasta handia izaten duenez, aurtengo ere saio bi eskainiko dituzte: lehenengoa bihar zapatuan eta bigarrena hurrengo asteburuan, hilaren 26an. Biak Hezkuntza Esparruan egingo dituzte, 17.30etan (sarrerak euro batean salgai). "Luces, cámara ¡¡¡Culebrón!!!" izenburuko ikuskizunean telenobela baten grabazioa antzeturako dute eta, nola ez, salta eta iskanbilarik ez da faltan izango.



## **Marrazkiak Galizia Etxean**

**Urteroko moduan, Gabonak agurtu** eta egun gutxira, hurrengo Gabonetarako postala aukeratzeko marrazki lehiaketa egin zuten As Burgas Galiziako Etxean zapatuan. Ume mordoak hartu zuten parte eta irabazleak Ander Arce, Jone Rodríguez eta Xabier Varela (hiruak 9 urtekoak) izan ziren 6 eta 9 urte bitartekoak mailan; 10 eta 12 urte bitartekoak mailan, berriz, Ines Moreno, Nuria Escalante eta Nahia Unzetabarrenetxea izan ziren irabazleak, hurrenez hurren. Postalerako erabiliko duten marrazkia nagusien mailako lehen saria jaso duen Ines Morenok egindakoa izango da.

## **Egin txotx Korrikarekin**

**Korrika Kulturala hilaren 26an hasiko da**, Usurbilen euskara ikasleei egingo zaien omenaldiarekin. Euskalduntzen eta alfabetatzen diharduten milaka eta milaka lagunak omendu eta protagonista bilakatzeko asmoz, Korrika 18k egun horretan txotx erraldoia prestatu du. Horrez gain, egun osorako egitaraua antolatuta dute: 13.00ean bertsoari saioa eta kupelen irekiera; 14.30etan bazkaria; 16.30etan ekitaldi nagusia; 18.00etan erromeria; 19.00etan kantu jira; eta 21.00etan Esne Beltzaren kontzertua. Joan nahi duenak AEK euskaltegian sarrera erosteko aukera dauka, 10 eurotan (jatekoa, sagardoa, kontzertua eta autobusa barne). Bertara joateko autobusa Eibartik, Ego Gaietik 12.00etan irten-go da (Soraluzetik 11.30etan zubi nagusitik eta Elgoibarretik 12.30etan Kinkon geltokitik).



## Txotxongiloak eta magia Zapatuetako Tailerretan

Udalak antolatutako Zapatuetako Tailerretan izena emateko epea zabalik dago. Haur Hezkuntzako 3. mailako ikasleek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek gurasoekin batera Foamy egindako txotxongiloak eta apaingarriak sortzeko aukera izango dute eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek, berriz, magia trikimaluak ikasteko aukera. Tailerretan parte hartzeko gurasoren bat umeari laguntzen egotea ezinbesteko baldintza da. Tailer biak otsailaren 2an, 16an eta 23an eta martxoaren 2an emango dira Portalean (3. solairuan) eta parte hartu nahi dutenek ondoen datorkien



ordutegia aukeratu dezakete. Izen-emateko epea urtarrilaren 24an amaituko da eta umeek ikastetxean entregatu beharko dute izen-emateko orritxoak. Prezioa 10 eurokoa da (ikastaroan bertan ordaintzekoak).

## Homeroren "Odisea" txotxongiloekin



Bihar Txotxongilo Taldeak "Odisea" umeendako antzekizuna eskainiko du zapatuan, 17.00etatik aurrera Coliseoan (sarreak 5 eurotan salgai). Ikuskizunean Ulisen abenturak kontatuko dituzte, Homerok idatzitakoan oinarrituta. Hala ere, lan horretan hamaika pasadizo jasota daude eta denak taularatzea ezinezkoa zenez, antzezlanerako istorio bakarra aukeratu zuten: Polifemorekin duen liskarra eta Poseidon itsasoko errege eta horren aitak egiten dion eraso.

## Zarzuclari Keinua Hondarribian Sostoarekin


Hondarribiko Udalak antolatuta, bihar zapatua 20.00etan Sostoa Abesbatzak "Zarzuclari Keinua" ikuskizuna eskainiko du Itxas Etxea auditoriumean. Bertan hainbat egileren piezak abestuko dituzte: Barbieri, Chapí, Sorozabal, Vives, Zapirain... Orain urtebete Coliseoan estreinatu zuten eta ondoren Elgoibarren eskainitako ikuskizuna jendeari asko gustatu zitzaion eta Hondarribiko publikoaren gustokoa izateko esperantzarekin doaz Sostoaokoak.



## laburrak

### JOSEBA LOZANO

Juan San Martin Udal liburutegiak antolatu duen Irakurketa Klubaren hurrengo proposamena Joseba Lozanoren "Argiaren Erreina" eleberri beltza da. Liburua irakurri eta Idazlearekin Berbetan saioan parte hartu nahi duenak liburutegian bertan eman dezake izena eta liburua ere han emango diote. Joseba Lozano idazlea, berriz, otsailaren 5ean (martitzena) joango da liburutegira, 19.00etatik aurrera bere lanaz irakurleekin berba egiteko. Parte-hartzea doan da.



### DANBORRADA DOMEKAN

Domekan 12.30etan Danborradaren Kontzertua eskainiko dute Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Bandak Coliseoan, Eibarko Danborradako barrilek lagunduta. Urtero San Sebastian inguruan eskaintzen duten kontzertu bereziak betiko martxari eutsiko dio eta, Sarriegiren doinuekin batera, Eibarko Danborradako beste batzuk ere entzun eta abesteko aukera izango da.


**JAVIER**  
ALDAY

**MARILOLI**  
RAMOS

**2. Urteurrena (2011-I-20)**

**AITXA, AMA: zuen irribarreek gure bidea argitzen jarraitzen dute. ASKO MAITE ZAITUZTEGU.**


**Beraien aldeko MEZA igandean, urtarrilaren 20an, izango da, 12.00etan, San Andres parrokan**





## Emakumeen Egunaren inguruko lehiaketa

Arrate Kultur Elkartek Martxoak 8 Emakume Langilearen eguna dela eta, I. Lan Artistikoen Lehiaketa antolatatu du. Lehiaketan 18 urtetik gorako eibartarrek har dezakete parte, egun horrek adierazten duenarekin lotura duen edozein artelan aurkeztuta. Teknika artistak berak aukeratu du eta margoak, eskulturak, argazkiak, marrazkiak zein beste edozein espresio bideri jarraitutakoak onartuko dituzte. Lanak egilearen datuak (izen-abizenak eta telefono zenbakia) barruan izango dituen gutunazal zuriarekin batera aurkeztuko dira, kanpoaldean lanaren izenburua adierazita. Arrate Kultur Elkarteko bulegoan laga beharko dira, otsailaren 28a baino lehen. 200 euroko saria jasoko duen irabazle bakarria aukeratu dute epai-mahaikoek. Lan guztiak martxoaren 8tik 24ra bitartean Topalekuan egingo duten erakusketan ikusgai ipiniko dituzte. Irabazlea zein den esateko eta hari saria emateko ekitaldia erakusketaren inaugurazioarekin batera egingo da.



### Osabide ez da euskaratuko

Osakidetzak ez du euskaratuko Osabide historia klinikoetarako tresna. Ian hori "diru aldetik bideragarria ez delako". Programa euskaratzeko ardura Osakidetzako Informatika eta Informazio Sistemetakoz zerbitzuarena da eta, gaur egun, hizkuntza normalizazioarako "beste lehentasun batzuk" ditzutela jakinarazi dute. Beraz, aurretiaz ere gaztelania hutsean egongo da osasun profesionalek erabiltzaileen osasun arazoak jasotzeko erabiltzen duten sistema, azken hilabeteetan hainbat medikuk lanabes hori euskaratzeko eskatu arren.

## euskararen txokoa

### Bertso Eguna hilaren 26an

Bertsozale Elkarteek urteroko Bertso Eguna prestatzen dihardute eta egun horrekin gozatzeko aukera zabaldu dute dagoeneko, sarrerak [www.bertosarreak.eu](http://www.bertosarreak.eu) helbidean lortu baitaitezke hilaren 25era arte. Ohikoari jarraituz, urtarilaren azken zapatuan egingo da Donostian. Goizetik Alde Zaharreko kaleetan jardungo dute bertsolariak eta arratsaldeko 18.00etan izango da ekitaldi nagusia. Gauean, bestalde, bertsozaleen jaia izango da, kubo azpian eta kupel artean. Azken urteotako gizarte bilakaera izango du gaitzat Kursaalako ekitaldi nagusiak.

## Leo Harlem-erako bigarren funtzioa

Astelehenean benetan ilara luzea osatu zuten hilaren 26an Coliseoan izango den Leo Harlem komikoa ikusteko sarrera bila joan zirenek. Jendeak euripean luzaroan itxaron behar izan zuen eta asko haserratu ere egin ziren. Hori dela eta, Udaleko Kultura sailak hainbat gauza argitu nahi ditu: *"Euskara-Kultura sailak emanaldi guztietan, beti gordetzen ditu 20 sarrera: 10 konpainiak edo artistak berak dituen konpromisoetarako izaten dira (normalean kontratuan horrela jasota dator) eta beste 10 zozketetarako (Liburutegian edo udalak antolatutako lehiaketetan) eta bestelako konpromisoetarako (kritikoei, antzerki programatzaileri... emateko). Inori ez bazarzio ematen, ikuskizuna eskainiko den egu-*



*nean bertan salgai ipintzen dira".* Aurresalmenta egiteko moduz, berriz, ordutegiak Udalak hilero argitaratzen duen e-kultura gidan azaltzen direla diote, Coliseoko telefono zenbakiarekin batera: "Leo Harlmenen sarrerak telefonoz erosteko aukera eman zen, txarteldegia zabaldu zen ordu berean hasita (19.00etan). 20.00etarako lehenengo funtzioetako sarrerak agortu ziren eta 20.15ak aldera bigarren funtzioetako (22.30) saltzen hasi ziren, 21.20ak aldera, ilaran zegoen jende guztiari txartelak saldu eta gero". Horiek argituta, gaur 21.00etatik 22.00etara eta astelehenean 19.00etatik aurrera takillan zein telefonoz bigarren funtzioetako sarrerak erosteko aukera izango da.

## Goenkalekoak taula gainean


Glu Glu Producciones antzerki taldeak gaur 20.30etan "Goenkale. Kondesaren erretratua", emisioan 18. urtea bete duen ETBko teleailean oinarritutako antzezlanaren taularatuko du (sarrerak 10 eurotan salgai, saioa hasi baino ordu bete lehenago). 2013ko uztailean bitartean hainbat antzokitik eskainiko den lan honetan Xabier Perurena (Ibon), Ylenia Baglietto (Eider), Felix Arkarazo (Andoni), Maria Cruickshank (Itxaso), Yannick Vergara (Rakel) eta Carlos Nguema (Nelson) aktoreek egiten dute lan, Jokin Oregik zuzenduta. Antzezlanaren telesailari arrakasta eman dioten elementuei (intriga, maitasun istorioak), barrea eragingo duen komedia gaineratu diete. Egileen berbetan, "ikusleen go-




zamenerako atondutako egitasmoa da eta sorpresa bat edo beste ere egongo da. Besteak beste, telesailaren hastapenetako pertsonaien gainean orain arte ezkutan gordeta egon den daturen bat ezagutzeko aukera izango da".

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, NADIA, gaur lau urte egitten dozulako. Aitta, ama eta aitxita-amamen partez.




Zorionak, JULE, eguaztenian zazpi urte egin zenduazena eta. Laztan haundi-haundi bat.



Zorionak, IRADI, etxeko sorgiñari, domekan urtebete egin zenduan eta. Etxekuen partez.




Zorionak, XABI Arregi, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat lagun eta famelixaren partez.




Zorionak, LUKEN, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ARKAITZ, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ANDER, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Aupa, txapeldun! Danon partez.




Zorionak, ALAIN, atzo zortzi urte egin zenduazelako. Etxeko artisiarentzat, muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, UXUE, etxeko printzesa, bost urte egin dozuz-eta. Segi holan! Ekain, aitaixo eta amatxoren partez.




Zorionak, JULEN Blanco Gantxegi, bixar hiru urte beteko dozulako. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, LUKA, domekan urtetxo bat beteko dozu-eta. Oso ondo pasa eguna, maittia! Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ENERITZ, gure etxeko sorgiñak atzo hiru urte bete zittuan eta. Muxu potolo bat famelixa eta lagunen partez.



Zorionak, MAIALEN eta NORA, etxeko printzesak! Bixar batak urtebete eta astelehenian bestiak bost egingo dozuez-eta. Patxo bat etxekuen partez.



Zorionak, ASIER Esparza (urte amaieran zazpi urte eginda) eta AITXITXA FELIX (urte hasieran bete zittuan). Bixondako patxo potoluak famelixaren partez.



Zorionak, JANA (bost urte egin zittuan haraiñegun) eta PABEN bere osaba (31 bete zittuan atzo), zuen urtebetetzietan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE (bixar zazpi urte beteko dozuz). Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be; IRAIAren partez.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

**18an: 22.30**  
**19an: 19.45, 22.30**  
**20an: 17.00, 20.00**  
**21ean: 20.30**

**"La hija de mi mejor amigo"**

Zuzendaria: Julian Farino



(2 ARETOAN)

**18an: 22.30**  
**19an: 19.45, 22.30**  
**20an: 17.00, 20.00**  
**21ean: 20.30**

**"Una pistola en cada mano"**

Zuzendaria: Cesc Gay




(ANTZOKIAN)


**18an: 22.30**  
**19an: 19.30, 22.30**  
**20an: 20.00**  
**21ean: 20.30**

**"Lincoln"**

Zuzendaria: Steven Spielberg



Zorionak, JULEN, gaur bost urte betetzen dozulako. Muxuak famelixaren partez.



Zorionak, JULES! 1, 2 eta... 3 urte! Haundi-haundixa zara. Aupa, Pipitan!

## BARIXAKUA 18

### GAZTELEKUA

**16.30.** Disparate Eguna. Indianokua gaztelekuan.

### GURASOAK BERBETAN

**17.30.** Koko-jantzi tailerra Gurasoak Berbetan programakoentzat. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

### ANTZERKIA

**20.30.** "Goenkale. Kondesaren erretratu". Glu Glu producciones taldea. Sarrerak: 10 euro. Coliseoan.

## ZAPATUA 19

### ANTZERKIA

**17.00.** "Odisea" umeendako antzezkiuzuna. Bihar Txotxongilo taldea. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Marrazki Lehiaketa. Indianokua gaztelekuan.

### LAGUN TALDEA

**17.30.** "Luces, cámara... ¡¡¡Culebrón!!!" ikuskizuna, Lagun Taldearen eskutik. Sarrera: Euro bat. Hezkuntza Esparruan.

### ZINEMA

**17.30.** "Gnomeo y Gullietta" filma. El Corte Inglés-ean.

### HITZALDIA

**18.00.** "Alkoholismoak nola eragiten dion familia inguruari". Sarrera librea. Al-Anon elkartearen egoitzan (San Andres elizako lokaletan).

## DOMEKA 20

### DANBORRADA

**12.30.** Danborradaren kontzertua, Cielito Musika Bandaren eta Usartza Txistulari Banda. Eibarko Danborradako barrilek lagunduta.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Makilaje tailerra. Indianokua gaztelekuan.

## ASTELEHENA 21

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

## MARTITZENA 22

### IKASTEN

**10.00.** "Comunicación con los niños" hitzaldia, Iñaki Bidegainen eskutik. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**18.30.** "Aspectos del desarrollo y estrategias para educar", gurasoei zuzendutako hitzaldia. San Andres ikastetxean.

## EGUAZTENA 23

### IKASTEN

**09.55.** Mendi-ibilaldia: Eibar-Eizaga-Elgeta-Eibar. San Lorentzora joateko tranbiaren irteera Estaziñotik (Ardantzatik, 09.57etan).

## EGUENA 24

### IKASTEN

**10.00.** "Viena 1900" eta "El reino de Alejandro Magno" (11.00etan) hitzaldiak, M<sup>a</sup> Jose Noainen eskutik.

**18.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

### ODOLA-ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileentzat odola ateratzea. Odol-emaileen elkartearen (Pagaegi, 5).

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua, San Andres elizako lokaletan.

## lehiaketak

### ✓ Urtarrilaren 23ra arte

**ANTZEZ ARTIKULU ETA GIDOIENTZAKO XXVIII. NARRUZKO ZEZEN SARIAK.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Hezkuntza Esparruan (943208444 telefonoa).

### ✓ Otsailaren 16ra arte

**INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen (Isasi, 36).

### ✓ Otsailaren 28ra arte

**MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAren**

lan artistikoen lehiaketa. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.

## hildakoak

- Amelia Vázquez López. 89 urte. 2012-XII-27.
- Javier Lezeta Larreategi. 65 urte. 2013-I-10.
- Miren Egiguren Laka. 85 urte. 2013-I-11.
- Dolores Narbaiza Ansola. 93 urte. 2013-I-13.
- Mercedes Sarasketa Zubigarai. 87 urte. 2013-I-15.

## jaiotakoak

- Ane Plazaola Forner. 2013-I-5.
- Muhamdid Hamdi Mohamed Fadel. 2013-I-7.
- Ali Alal Gah. 2013-I-8.
- Erik Romero Huertas. 2013-I-9.
- Hodei Lasuen Aristondo. 2013-I-9.
- Emma Bastida Temprano. 2013-I-10.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Gogo onez hasiko duzu astea, indarrez, baina astea aurrera joan ahala nekea igarriko duzu eta gaixo ipini zaitzetzke.

### TAURUS

Zure betebeharrak gauzatu beharko zenituzke besteei ezer esan aurretik. Asteburu aproposa duzu horretarako.

### GEMINI

Zure bizitzaren protagonista nagusia zu zara: ez pentsatu gehiegi besteengan. Ileaipaindegira joan beharko zinateke.

### CANCER

Gaizki pentsatzea ez da konponbidea. Ez zaitetz inozoa izan, ezta deskonfiatuegia ere. Ea erdibidea aurkitzen duzun.

### LEO

Aspalditik zeneukan arazoa konponduko duzu datorren astean. Horrela, lasaiago ibiliko zara hemendik aurrera.

### VIRGO

Berri onak, espero ez direnean hobeto! Ezustean, berri zoragarria jasoko duzu hurrengo egunotan. Merezita zeneukan!

### LIBRA

Osasun aldetik ez zara oso ondo ibiliko. Baina ezin zara kexatu, beste hainbat gauza zoragarri gertatu baitzaizkizu.

### SCORPIUS

Pelikula bateko protagonista izanez gero, zein izatea gustatuko litzaizuke? Agian hobe kamera atzean egotea, ezta?

### SAGITTARIUS

Gurasoak kezkatuta dituzu hainbeste sekreturekin. Kontatu beharko zenieke: pisu handia kenduko duzu gainetik.

### CAPRICORNIUS

Inguruan gauza ezatseginak ikusiko dituzu eta eragina izango dute zugan. Horri aurre egiteko gai izango zara.


### AQUARIUS

Ezin baduzu egin, ez ezazu egin. Halako burrugogorra! Zure mugak onartu eta beste baten esku laga zuk ezin duzuna.

### PISCIS


Nolako "sakea". Gosetuta ibiliko zara hurrengo egunotan eta ez da egongo jakirik zure sabela asetuko duenik.





## erakusketak

- ✓ **Urtarrilaren 20ra arte**  
**HAREK UMIAK (GERRAKO EIBARKO UMEAK).**  
Kalean.
- ✓ **Urtarrilaren 31ra arte**  
**MARIA CAÑO.** Argazkiak.  
Portalea tabernan.  
**MARIA AGIRRE.** Argazkiak.  
Klub Deportiboan.  
**MARI SOL YABEN.** Argazkiak.  
El Ambigü tabernan.



## ikastaroak

- ✓ **Urtarrilaren 21era arte**  
**KOKO JANTZIAK DANTZATZEKO.**  
**Kalejira irekian dantzatuko direnak.**  
Noiz eta non: Otsailaren 2an eta 9an, arratsaldeko 20.00etan, Portalean.  
Izen-ematea: Ikastetxeetan (10 euro).
- ✓ **Urtarrilaren 24ra arte**  
**ZAPATUETAKO TAILERRAK.**  
**"Magia trikimaluak" (LH 5. eta 6. mailak).**  
Noiz eta non: Otsailaren 2an, 16an eta 23an eta martxoaren 2an, Portalean.  
Izen-ematea: Ikastetxeetan (10 euro).

## farmaziak

- ✓ **barixakua 18**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapatua 19**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **domeka 20**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **astelehena 21**  
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **martitzena 22**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguztana 23**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguna 24**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **barixakua 25**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

- ✓ **Urtarrilaren 30era arte**  
**EMOZIOEN KUDEAKETA (Sendian programa).**  
Non eta noiz: Otsailak 5, 7, 12 eta 14an,  
15.00etatik 17.30etara Portalean.  
Eskaerak eta informazioa: Pegoran.

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etarik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 15.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

5	9	7	2					3
4	2			8			5	
7								5
	8		7	3	6		1	
1								6
	1		5				3	7
2				1	9	6	8	

## SUDOKUA

7	2	3	8	5	4	1	6	9
6	1	4	7	3	8	9	4	2
9	4	5	8	2	1	5	7	3
1	6	4	3	8	2	7	8	9
8	7	2	4	1	9	6	3	8
6	3	9	6	8	7	4	2	1
4	8	2	9	1	6	1	7	
3	8	1	9	7	6	3	8	4
3	4	7	1	4	8	2	5	8

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Babes ofizialeko pisua salgai Amanñan. 70 m<sup>2</sup>. Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.

### 1.2. Errentan

– Egongela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.  
– Pisua alokagai Elgetan. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Igo-gailua eta kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 606-083992.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Karmen kalean. Itxita. 18 m<sup>2</sup>. Gauzak gordetzeko tokiarekin. Tel. 630-690317.  
– Garaje itxia edo marraduna, trasteroarekin, hartuko nuke alokairuan. Errekatxu, Sansaburu edo Bista Eder inguruan. Tel. 636-322725.  
– Beheko lokala alokagai Ubitxan. Sarrera kaletik. 100 m<sup>2</sup>. Tel. 617-688311.  
– Lokala alokagai Otaola etorbidean, Unibertsitate Laboralaren ondoan. 25 m<sup>2</sup>. Baita kuadrilrentzat ere (ez adin txikikoak). Tel. 681-303507.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Informeak. Tel. 681-041297.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 698-367223.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-884287.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta lantegietan jarduteko. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 608-401590.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-366850.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 654-349366.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-843512.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-041099.  
– Erizaina eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-733490.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskoletako lanak egiteko. Tel. 678-925568.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-078715.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-946077.  
– Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 634-007292.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauez ere. Tel. 680-121252.  
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.  
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.  
– Mutila eskaintzen da jatetxeetan jarduteko, garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta gidari moduan. Tel. 698-467862.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 689-926022.  
– Gizona eskaintzen da gidari moduan (nazionala, nazioartekoa eta bidaiariek). Esperientzia handia. Tel. 697-406210.  
– Gizona eskaintzen da baserriak edo etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko ospitalean zein etxean. Tel. 688-812845.  
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 645-557141.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-376387.  
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 685-375377 eta 943-257605. Jacqueline.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-234524.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizona eskaintzen da kamarero zein sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 692-332871.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.  
– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko, etxeak garbitzeko eta umeak eskolara eramateko. Tel. 639-611454.  
– Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta obretako laguntzaile moduan. Tel. 638-560617.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.  
– Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-230789.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zabala. Tel. 671-258740.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta as-teburuetan. Tel. 632-253170.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-362251.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 627-652870.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-156403.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-047847.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-700803.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrak ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

## 6. Denetarik

### 6.2. Eman


– Lehen jaunartzerako marinel trajea salgai. 14 tallakoa, krema kolorekoa. Prezio onean. Tel. 630-686469.  
– Txakur txikia (bi hilabete) ematen da adopzioan. Tel. 676-609319 eta 943-200590.  
– Katua oparitzen da. Lau urtekoa. Txerto guztiak hartuta. Tel. 636-550740.

# Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

*Ikita eta ikasi behar gertatzen da. Aldatzeak ezin du ikaslearen erabilerak erabakitzea eta, horren ondorioz, ikaslearen erabilerak, irakaslearen pedagogia, ikaslearen beharretara, beharretara (FCO) eta horien ondorioz, ikaslearen erabilerak.*

## ALDATZE DANOK GARA II. Jardunaldiak

**Marztuaren 28an**  
**18:30etan**  
**Herrera**  
**19:30etan**  
**Bizkaiko Gidatzaile Taldearen**  
**12:30etan**  
**Harritaketa**



HEZIKEDA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDE OSO BAI HEZTAN

ELEBIDUN IKASTETXEA

II URTEAN TIRA BIKARTEKO IKASLE NERKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEAN SELEKTIBITATEKO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIE.

IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANEN OINDUTEGIAK BATERAGARRI EGITEKO ZERBITZU ERKAITZA



### ALDATZE

Centro Santa María  
de la Presidencia

Aldatze Kalea, 3 - 20001 ETOAR  
Tel: 943 20 11 50 - Fax: 943 20 13 04  
aldatze@aldatze.org



*aldatze*



...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
itzu  
**zerbitzua**

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelarrera,  
gaztelertatik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**



- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)



**bista eder**

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak  
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75**